



Lola Iturberen eskola



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Bartzelona, 1902ko abuztuaren 1a. Lola Iturbe Arizcuren anarkista eta feminista aitzindaria jaio zen. CNT-ko kidea eta Mujeres Libres erakundeko sortzaileetako bat, 1936ko Espainiako Gerra amaitzean Frantziara alde egin zuen eta han Erresistentzian parte hartu zuen. Franco hil eta gero Gijonera joan zen eta han hil zen 1990ean, ekintzaile izateari sekula utzi gabe. Haren haurtzaroa erabakigarria izan zen geroko ibilbide mamitsua taxutzeko.

Bartzelonan jaio arren, Lola Nafarroan ernalduta zuten, Monrealen. Bertakoa zen Micaela Iturbe ama. Ezkongabea zela gelditu zen haurdun eta, horregatik, aitak, Lolaren aitona, arbuiatu egin zuen. Micaela Bartzelonara joan zen orduan, eta han erditu zen. Haurra zaintzeko bitartekorik ez zuenez, Valentziako familia bati utzi zion Lola jaioberria.

Lehen zazpi urteak Cerdá herrian eman zituen, ama haren bila joan zen arte. Orduan jakin zuen Lolak Micaela zuela ama, eta herri txikian zuen bizimodu lasai eta askea errotik aldatuko zitzaion. Amarekin batera, Bartzelonan, lanean hasi behar izan zuen; Posentí familiaren etxean neskame lanetan hasi ziren ama-alabak, sukaldean eta nagusiaren alaba gaixoa zaintzen. Baina nagusiaren negozioak porrot egin zuen handik gutxira, eta biek etxea utzi behar



Duela 120 urte jaio zen Bartzelonan Lola Iturbe ekintzaile anarkista eta feminista.

izan zuten. Micaelak pentsio txiki bat zabaldu zuen Rossic kalean. Lola, pentsioan laguntzen aritzeaz gain, jostintzan hasi zen bederatzi urte besterik ez zituela. Eta eskola utzi behar izan zuen.

Baina pentsioa eskola libertario modukoa izan zuen Iturbek. Bertan langile askok hartzen zuten ostatu, eta haien

bidez jaso zuen une hartako asaldura sozial eta politikoaren berri. Hain urte gutxitan bizitzak emandako jipoiek irakatsitakoari diskurtsoa eta antolatzeak aukera erantsi zizkion. Eta, hala, ez da harritzekoa, 14 urterekin, ehungintza industrian prakagin aprendiz zela, CNT sindikatuan buru-belarri sartzea. ●



SAMIA

Erromatar busto ibiltaria

2008an Laura Young antikuariok busto bat erosi zuen 34,99 dolarren truke, Austingo (Texas, AEB) bigarren eskuko denda batean. Piezaren jatorria ikertu ondoren, erromatar garaikoa zela jakin zuten. Egun San Antonioko Arte Museoa dago ikusgai, baina aurki legez dagokion lekura itzuliko dute. Italiara? Ez, Alemaniara. Luis I. Bavariakoak Ponpeiako etxe baten

erreplika egin arazi zuen XIX. mendean, Pompejanum izenekoa, eta Bigarren Mundu Gerrak eztanda egin zuenean hantxe zegoen bustoa. Biltegi batean gorde zuten orduan. Ez dakigu nolatan iritsi zen pieza AEBetara, litekeena da soldadu estatubatuar batek lapurtzea. Baina, hori guztia baino lehen nolatan iritsi zen bustoa Luis I.aren eskuetara? ●